



BARREN  
TOKIKOM

# Elkartuta, infinitezaino







**AINHOA UGALDE JAUREGI**

Haur Hezkuntza graduko 4. mailako ikaslea  
Mondragon Unibertsitatean.

## *“Irakasleen profesionaltasuna azpimarratuko nuke”*

### ■ **Definitu apur bat zure burua: non egin dituzu orain arteko ikasketak? Baduzu zaletasunik?**

Txikitan Elgoibarko Herri Eskolan hasi nituen ikasketak. Eskola hura beti sentitu izan dut nire etxe gisa eta xarma berezia dauka niretzat. Handik, Elgoibarko Institutura egin nuen jauzi eta lau urte igaro ondoren, Batxilergo musikala egitea erabaki nuen Elgoibarren bertan. Azken bi urte horiek, selektibitatearen mamua alde batera utziz, asko gozatu nituen; izan ere, gustuko nuena egiten ari nintzen. Musikarekin jarraituz, horixe izan da nire zaletasuna betidanik; saxofoia jotzen dut Elgoibarko Udal Musika Bandan eta Mauxitxa txarangan.

### ■ **Zergatik aukeratu zenuen Haur Hezkuntza gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?**

Beste gradu batetik nentorren, baita metodologia oso desberdin batetik ere. Argi nuen ez nuela metodologia hori eskaintzen zuen unibertsitate batean erori nahi. Horrela, udan asko pentsatu eta hainbat lagunen gomendioak jarraituz Mondragon Unibertsitateko Haur Hezkuntza graduko sarbide frogara egitea erabaki nuen. Besterik gabe, aurreko gradua utzi nuenean argi nuen ni haur artean egon behar nintzela.

### ■ **Nola baloratuko zenuke orain arte bizitako esperientzia?**

Gaur arte bizitako esperientzia ikaragarria izan da, zentzu guztietan. Ez nuke jakingo nola azaldu zehatz-mehatz, baina urtero, ikasturtea bukatzean, behin eta berriro esan diot nire buruari hori dela nire tokia.

### ■ **Nola definituko zenuke Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean jasotzen duzun ikasteko metodologia?**

Hasieran oso galduta sentitu nintzen. Tamalez, nire ikasketa prozesua beti oinarritu izan da “ikasi-azterketa-ikasi-azterketa” leloan: zenbaki baten presiopean. Metodologia berri honetan murgildu nintzenean *ikasle on* etiketaren presioa kendu ahal izan nuen Ainhoa izateko. Ez zegoen zenbakirik, ezta azterketarik ere. Gainera, momentuan izaten edo sentitzen ari nintzena bizitzeko askatasuna nuen, beldurrik gabe. Gutxienez, ikaslea errespetatzen saiatzen den metodologia bat dela esango nuke, eta ondorioz, ikasleak ikastea lortzen duena. Hori gutxi balitz, ikasiko dugun hori bizitzeko aukera ematen du.

### ■ **Unibertsitatetik zer da gehien gustatzen zaizuna?**

Zalantzarik gabe: ikasleok pertsonak garela eta ez zenbakiak. Bestalde, irakasleen profesionaltasuna azpimarratuko nuke. Gehienak eskainitako konfiantzagarrik eta gertutasunagarrik gogoratzen eta gogoratuko ditut. Zer esanik ere ez dago haurrarekiko maitasun, errespetu, ezagutza eta mirespena transmititzeko orduan.

■ **Etorkizunari buruz zeintzuk dira zure asmoak?**

Lau urte hauek ezinbestekoak izan dira nire burua ezagutu eta bertan asko arakatzeko. Haurtzarora jo eta haserrealdi ugari konpontzeko zein ulertzeko aukera izan dut. Orain, informazio guztiari balioa eman eta autoezagutzan jarraitzeko momentua dela esango nuke. Haur Hezkuntzako geletan oinarritzea da hezitzaile enpatiko eta maitakorrik izatea, baina ez haurrekin soilik, baita gure buruarekin ere eta azken hau ez da zeregin erraza izaten. Etorkizunera begira, adimen emozionalaren mundua landu nahi nuke.

*“Haur Hezkuntzako  
geletan oinarritzea da  
hezitzaile enpatiko eta  
maitakorrik izatea”*

ALEX SEGADE

Kazetaria



## Politika kirolean

ez dut oso ondo ikusten. Azken fi-  
nean, beraiek ere gerraren biktima  
dira, hango biztanleria bezalaxe.  
Berriz ere, politikan eta nazioarteko  
harremanetan gertatzen denak kirolean  
ere eragozpenak sortu ditu.

Auto-lasterketen alorrean, isun honi  
aurre egiteko ideia xeblebre batekin  
topo egin dute: gidari errusiar eta bie-  
loerrusiarrek Nazioarteko Automobi-  
lismo Federazioaren bandera  
neutralarekin parte hartzea. Modu ho-  
rretan, federazioaren izenean parte  
hartuko dute eta ez beren herrialdearen

***“Gerra Hotzean gertatu  
zen bezala, gaur egun ere  
nazioarteko tentsioak  
kirolean eragina  
izaten jarraitzen du”***

izenean. Konponbidea nahiko ona da,  
baina gidariak euren herrialdea orde-  
katzeari uko egin behar diote, eta  
agian ez dira denak ados egongo.

Gerrak ondorio gehiago ere ekarri  
ditu kirol mailan. Championseko finala,  
adibidez, San Petersburgon jokatu  
behar zen, baina gerra dela-eta, par-  
tida Parisera lekualdatu dute. 1 Formu-  
lan Errusiako lasterteka egutegitik  
ezabatu dute, eta momentuz, ez da  
gehiago han jokatu. Gerra Hotzean  
gertatu zen bezala (bi blokeek Olinpiar  
Jokoetan boikotak egin zituzten), gaur  
egun ere nazioarteko tentsioak kirolean  
eragina izaten jarraitzen du, eta  
oraingo gerra horren adibide garbia  
da. Komunikabideek gerraren ondorio  
politiko eta ekonomikoetan sakontzen  
dute, baina kirola beste arma politiko  
bat dela ahazten zaie askotan, eta me-  
rezi duen garrantzia eman behar zaio.

Ukraina eta Errusiaren arteko ga-  
zazkak ez ditu ondorio ekono-  
miko eta politikoak bakarrik  
ekarri; kirol munduan ere kalte nabar-  
mena sortu du. Gerra hasi zenean Na-  
zioarteko Komite Olinpikoak  
nazioarteko txapelketetan parte har-  
tzea debekatu zien kirolari errusiar eta  
bieloerrusiarrei. Alde batetik, presio  
moduko bat egiteko estrategia dela  
ulertzen dut. Baina, bestetik, kirolari  
hauek bere ordezkariak edo politikariak  
egiten dutenagatik ez dute inolako erru-  
rik, eta halako isun potoloa ezartzea



BARREN

AGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA  
Euzko Lehen Topagunea

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

barren@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak  
lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia,  
Hitz eta klik eta eskuiztak ataletan adierazitako erantzukizunik.

**KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi,  
Asier Orbea, Ainara Argoitia, Irati Agirreazaldegi **HIZKUNTZA ARDU-  
RADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISE-  
NATZAILEA** Zalao Amaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA**  
Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIA** Amaia Arrizabalaga **KOLABORATZAILEAK**  
Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula  
Heras, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegi, Juan Luis Mugertza,  
Izaro Etxegibel, Iñaki Goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade,  
Ane Kortaberria, Sara Iriondo, Asier Guisasola **INPRIMATEGIA** Gertu  
Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN**  
1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako en erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

### ► KIROL PATRONATUARI ESKAERA

Jakin dugu aurtengo Udako Kirol Campusa ekainaren 27tik uztailearen 22ra izango dela eta guraso talde moduan, Udal Kirol Patronatuari eta Udalari eskatu nahiko genieke azter dezatela zerbitzu hori, gure seme-alabek ekainaren 17an hartzen baitituzte oporrak.

Hori horrela izanik, aukera eman beharko litzateke Kirol Campusean, zerbitzu berezi bat eskaintzea ekainaren 20tik 24rako astean, eta ondoren, hurrengo lau asteetan, bi txanda aukeran ematea gutxienez.

Badakigu ez dela lehen aldia eskaera hau jasotzen duzuen. Askotan epez kanpo egindako proposamenak izango ziren, baina oraingo honetan uste dugu garaiz gabiltzala antolaketa on bat egiteko aukera izan dezazuen eta herriak eskatzen duen zerbitzua berma diezaguzuen.

Gustatuko litzaziguke eskaera kontuan izatea, lehen ere kontziliazio arazoak kudeatzeko zailtasunak izaten baititugu.

#### Guraso talde bat

### ► EAJ-PNV MALTZURKI ARI ZAIO ERANTZUTEN 5.501 HERRITARREN ESKAERARI

24/7 Plataformaren ekimenez, anbulatorioan 24 orduko zerbitzu bat berriro irekitzeko eskaerak 5.501 elgoibartarren babesa jaso zuen eta abenduko Osoko Bilkuran aurkeztutako mozioaren bidez bi gauza eskatu zizkieten herritarrek Udalari:

1. Alderdi politikoei, arazoaren konponbidean inplikatu eta parte aktiboa izan zitezten.

2. Udalari, elgoibartarren izenean, Elgoibarko Etengabeko Arreta Gunea ahalik eta azkarren berreskuratzeke, Osakidetzaurrean beharrezko kudeaketak egitea.

EH Bildu eta Podemosen botoez onartu zen mozioa. EAJ eta PSE abstenitu egin ziren. 5.000tik gora herritarrek egin-

dako eskaeraz ez zuten iritzirik. Otsailaren 25eko BARREn, plataformak zioen alkatearen erantzunak harritu egin zuela: «Ane Beitiak bere kabuz erabaki du Osakidetzaekin harremanetan nola jarri. Herritarrei ezer jakinarazi ez izanak, pentsarazi digu gaia gaineretik kendu nahi izan duela. Gainera, Osakidetza eskatu dio anbulatorioan pandemia aurretik zegoen ordutegia berreskuratzeke, 20:00ak arte, baina 24/7 plataformaren eskaera, 24 orduko zabaltea da, asteko zazpi egunetan»

Hilaren 6an, EAJ-PNVk oharra argitaratu zuen DV-ren bitartez. Etsi-etsian eta lotsagabe ezker abertzaleari jaurtitako irainez gain, hauxe zioen: «Beitiak, Udal-autoritate gisa, bere eskumenenez jarduteko, osasun-erloto aldarrikapenak despolitizatzeke eta Covid aurretik zegoen prestazioa berreskuratzeke konpromisoa hartu zuen».

Baina horra hor: hori ez da Udalbatza erabakitakoa. Alkateak bilatu behar duen helburua, herritarrek sinatutakoa eta Udaleko Osoko Bilkuran erabakitakoa da: «Etengabeko Arreta Gunea ahalik eta azkarren berreskuratzea». Etengabeko zerbitzua, ez EAJk asmatutako erdibidekoa. Politikakeriak bide laburra du. Errealitate bakarra zera da, milaka herritarrek eskaera egin zutela eta Udalak horren aldeko erabakia hartu zuela. Eta EAJ-PNV abstenitu bazen ere, alkateak herriak erabakitakoa bete behar duela, ez bere alderdiak asmatutako beste ezer.

#### EH Bildu

### ► ZURE HITZA EDO NIREA?

Ostegunetako azokan gertatu zaidana helarazi nahi dizuet idatzi honen bitartez.

Ez dakit protesta moduan balioko duen, baina beste norbaiti niri gertatutakoa ez gertatzeko idazten ditut lerro hauek.

Pasa den ostegunean, martxoak 3, txandal praka pare bat erosi nituen azokan.

Prakak ordaintzerakoan saltzaileari galdetu egin nion ea ondo ez bazituen hurrengo ostegunean aldatuko zizkidan, aitari ziren eta gauera arte ezin izango nizkiola probatu esan nion, eta erantzuna baiezkoa izan zen.

Hau horrela, gauean prakak probatu eta justu samar zituen. Ez zen eroso sentitzen eta hurrengo ostegunean aldatuko nituela esan nion amari.

Zein izan zen sorpresa, martxoaren 10ean, lehenengo orduan prakak aldatzera joan nintzenean, ez zizkidala aldatuko esan zidanean. Erositako egunetan bertan eraman behar nituela esan zidan, bestela ez dituztela aldatzen.

Nik argi eta garbi utzi nion pasa den astean esan zidana, eta hori jakin izan banu ez nituela prakak hartuko, garbi neukalako gauera arte ez nizkiola aitari prakak probatuko.

Bere erantzunak ezezkoan jarraitu zuten. Ez prakak aldatu, ezta dirua bueltatu ere. Nork du arazoia? Epailen baten aurrean bakoitzak bere burua defendatuko luke, ez baitago ezer idatzita, ezta grabatuta ere, baina minduta eta aurpegi lapurtu didala sentitzen dut neure burua.

Nahi banuen, erosketa bale bat egingo zidala esan zidan, baina nik ezetz esan nion, ez dudala ezer behar eta gainera daukan arropa mota ez dela nire gustukoa. Nik prakak bueltatu eta bere ordaintzetan, ordaintutakoa bueltatzeko eskatu nion.

Ba erantzuna berriz ere, ez.

Hitz goxo batzuekin agurtu nintzen (gutziz kontrakoa noski...) prakak nirekin eramanda.

Hurrengoan ez zait horrelakorik gertatuko. Zerbait egin beharko dut agiri moduan geldidadin.

Eta zuei, irakurleoi, niri gertatutakoa lagungarri izango zaizuelakoan, kontuz eta adi ibiltzeko gomendatzen dizuet.





**S**anta Kurutzeko sutegiak zaborrez beteta aurkitu genituen: "Santa Kurutzera joan ginen eguna pasatzera, eta zaborrez beteta aurkitu genituen parrillak. Jendeari esan nahi diogu denonak diren azpiegiturak zaindu egin behar direla, eta mesedez, arduraz jokatzeko eskatzen diegu. Udalaren partetik, bestalde, ondo legoke ingurune horretako erabilera arauak zehaztuz kartelen bat jartzea, ingurunea errespetatu eta garbi laga behar dela gogoraraziz".



**A**rregitorreko paseoa lurrez beteta dago: "Autopistako panelak jartzeko obrak amaitu zituztenean txukundu zuten gure auzo ingurua, baina gero, hondeamakina eta bestelako makina batzuekin etorri ziren, lurra berdintzeko lanak egitera. Lan horien ondorioz, Arregitorreko etxeen atzean dagoen pasealekua lurrez beteta geratu da, eta euria egiten duenean, dena lokatz bilakatzen da. Eskertuko genuke garbitzea".



**M**aalako bidegurutze honetako ikusmena mugatua da: "Maalako bidegurutze honetan oinezkoek lehenetsuna dute. Kartela dago, eta lurrean ere zebra-bidea dago, baina espaloi ondoan dagoen zuhaitzak ikusmena mugatzen du. Oinezkoek ez dute ondo ikusten autoirik ba al datorren Ermuaranbide kaletik, eta auto gidariek ere, ez dute ondo ikusten oinezkorik al dagoen bidea gurutzatzeko zain. Gune arriskutsua dela iruditzen zait".

**G**azte lokalak intsonorizatuta egon behar dira?: "Etxepean gazteen lokal bat daukagu, eta asteburuetan jasanezina izaten da han sortzen den zarata. Udalak gazte lokalei buruzko araudi bat osatu zuen orain dela urte batzuk, eta jakin nahigenuke araudi horretan zehazten den lokalak intsonorizatu behar diren edo ez, eta baiezko kasuan, jakin nahi nuke noren ardura den hori, lokal jabearena edo gazteena. Eskerrik asko". Udaletik emandako erantzunaren arabera, ez dago lokalak intsonorizatzeke derrigortasunik, baina hainbat neurri bete behar dituzte lokaletako erabiltzaileek: "Gazteentzako topagune gisa erabiltzen diren lokalak arautzen dituen Udal ordenantzaren 25. artikuluan jasotzen dira zaraten eta bibrazioen aurka babesteko baldintzak: jardueraren abian dagoen bitartean, gertuen dauden etxebizitzetan eta lokaletan, ezingo dira gainditu Euskal Autonomia Erkidegoko soinu-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuan ezarritako gehieneko zarata eta bibrazio mailak (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria 2012/11/16). Horrez gain, Udal araudiak bizikidetzarako protokoloa jasotzen du; eta zehazten du herriarrek eragozpenak izanez gero, Udaltzaingora deitu behar dutela, beharrezko neurriak har daitezela. Udaltzainek gertatutakoaren txostena egiten dute, eta lau hilabeteko epean beste kexa bat egoten bada, lokala aldi baterako istea ere erabaki dezake Udalak".



📍 Otaola Hiribidea, 22 - Eibar

Kontzesionario eta zerbitzu ofizialak

Ibilgailu Berriak  
Bigarren Eskuko Ibilgailuak  
Mantentze-Zerbitzu Azkarra  
Mekanika  
Karrozeria  
Ibilgailuen Alokairua



DACIA



@grupogaurso



www.gaurso.com



674 801 717

Erronka berriei  
aurre egiteko,  
aldatu beharra dago.

Iritsi da **TicketBAI.**

Enpresek aurrera egiten dutenean,  
Gipuzkoak aurrera egiten du.

Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Departamentu Foral  
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA  
GRAN  
En futuro



**TicketBAI**  
GIPUZKOAN

[gipuzkoa.eus/ticketbai](http://gipuzkoa.eus/ticketbai)



## Udalbus zerbitzua ordainpekoa izatea erabaki du Udalak

Herri barruan autobus zerbitzua ematen duen Udalbus ordainpekoa izango dela jakinarazi du Elgoibarko Udalak. Bidaia bakoitzeko euro bat ordaindu behar da; euro erdi erretiratuek eta desgaitasuna dutenek; eta doan sei urtetik beherako umeek.

Zerbitzua 2020ko abuztuan jarri zuten martxan eta behin behinekoa bazen ere jarraipena ematea erabaki zuen Udalak. Orduetik 19.821 bidaia egin dituzte herritarrek zerbitzu horretan; batez beste, 71 bidaia eguneko. Bidaia bakoitzaren kostua 2,5 eurokoa izan da Udalarentzat, urteko 64.000 eurokoa. Indarrean sartu diren tarifa berriekin, herritarrek bidaiaren kostuaren % 20 eta % 40 artean ordainduko dute, eta Udalak, gainerakoa finantzatuko du.

Ordutegian eta ibilbidean ere izan da aldaketarik. Astelehenetik barikura 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara ibiliko da autobusa eta zapa-tuetan, goizez.

Ibilbideari dagokionez, Melitonerako zerbitzua Urazandikoarekin bateratu dute eta hauek dira egingo dituzten bideak:



ordu puntuetan Maalako biribilgunea - Herri Eskola - Urazandi bidegurutzea - Urazandi gaina - Urazandi bidegurutzea - Maalako biribilgunea - Aita Agirre; 20 minutuan Aita Agirre - Maalako biribilgunea-Erretsundi-Maalako biribilgunea; eta erdietan Maalako biribilgunea - Meliton-Urazandi bidegurutzea - Urazandi gaina - Urazandi bidegurutzea - Maalako biribilgunea.

Udalbusaz gain, garraio publikoak eman du beste berririk, izan ere Lurralde-buseko autobusetan eta Euskotreneko tre-

netan herri barruko geltokien artean egin eta Mugi txartelarekin ordaindutako bidaiak, diruz lagunduko ditu Udalak.

Diru-laguntzaren helburua da erdigunetik urrun dauden auzoetara (Sigma, San Pedro, San Antolin, Arriaga, Altzola) joan behar duten herritarrei erraztasuna ematea. Elgoibarko herritarrek MUGI txartel pertsonalizatua erabili behar dute laguntza jasotzeko. Eskaera egiteko epea 2022ko azaroaren 30era artekoa da eta elektronikoki aurkez daitezke Elgoibarko Udalaren web orriko herritarren atarian.

## Urazandi eta Kalamua kaleak lotzeko bidearen proiektua idazteari ekin dio Udalak

Udalak abian jarri du Kalamua eta Urazandi kaleak lotuko dituen bidearen proiektuaren idazketa. Proiektua idazteko aurrekontua 5.990 eurokoa da (BEZ gabe). Udalak proiektua uda honetarako idatzita izatea aurreikusten du, obra horrek etorkizuneko aurrekontuetan izan dezakeen aurrera-bidea aztertu eta ikusi ahal izateko. Bi kaleotako ipar-mendebaldeko muturrean egin nahi dute lotunea, trafikoa arinagotzeko helburuarekin. Zehaztu dutenez, Kalamua kalearen eta Urazandi kalearen arteko lotura faltaren ondorioz, oinezkoek eta ibilgailuek zirkulazio konplexua izan dute Urazandi auzoan, hainbat hamarkadatan. Bi kaleok lotu ahal izateko, kalearen maila aldatuko dute Kalamua kaleko 14. zenbakiko eraikinaren alboko eskailera mekanikoen ondoan dagoen zebrabidetik Urazandi kaleko 45. zenbakiraino, 55,29 metroko luzeran. Bi kaleak bide berri batekin lotuko dira, eta gehienez % 6ko malda izango dute. Gaur egun, Kalamua kalea irteerarik gabeko kalea da. Hau Urazandirekin lotzeak aukera berriak eman ditzake inguruko trafikoa antolatzeko, -norabide bakarrekoa izatea, esaterako- kontuan hartuta kale horretan Herri Eskola dagoela eta ikastetxean sartzeko eta irteteko puntako orduetan sortzen den trafiko-bolumena. Era berean, auzoko espaloiak handitzeko aukera emango luke proiektu honek, "bide publikoko egungo aparkaleku kopurua murriztu gabe eta gaur egun dagoen noranzko bikoitzeko zirkulazioak sortutako arazoak kenduz. Beraz, ibilgailuen eta oinezkoen eguneroko bizitza nabarmen hobetzen duen zirkuitu bat sortzen da, aparkalekuak gutxitzea ekarri gabe", adierazi dute udal agintariek. Hirigintzako zinegotzi losu Arraizek nabarmendu du bide berriak aukera gehiago emango dituela auzoko kaleak antolatzeko eta oinezkoen mugikortasuna hobetzeko. "Era berean, inguruko urbanizazioa berrituko dugu, atseginagoa eta irisgarriagoa izan dadin", esan du.

## Elgoibar ere "ukitzen" du Karakaten ipini nahi duten parke eolikoak Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratutakoaren arabera

Karakaten parke eolika egiteko administrazio-baimenaren eskaera argitaratu zuten joan zen barikuan Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean (EHAA). Kokapenaren berri ere ematen du iragarkiak koordinatu geografikoen bidez, eta zehazten denez, egitasmo honek "ukitutako udalerriak Soraluze eta Elgoibar" dira. Green Capital Development 135, S.L.U. enpresak egin du 9,6 MW potentzia duten bi aerosorgailu ipintzeko eskaera, eta orain, 20 eguneko epea zabaldu dute proiektu bera gauzatu nahi duten beste enpresek euren eskaerak aurkez ditzaten.

Parke eoliko horrekin sortutako energia Azkueko zentral elektrikorak bideratzea aurreikusi dute, eta Elgoibarko Udalak jakinarazi du proiektuaren "jarraipen estua" egiten diharduela. Proiektua oraindik hastapenetan dagoela gaineratu dute, eta argitu dute Elgoibarko Udalak ez duela oraindik izapide eta tramite ofizialik egiteko eskaerarik jaso. Soraluzeko Udaltzatzen, aldiz, aho batez onartu zuten Muskiritzuko mendilerroan bi haize errota ipintzearen kontrako mozioa *Mendigainean eolikorik ez!* izenburupean. EH Bilduko, EAJko eta PSE-EEko ordezkari politikoek argi adierazi zuten energia berriztagarrien alde daudela, baina behin hori esanda, gaineratu zuten "jakitun" direla "energia berriztagarriak erabili arren saihestezina izango dela ingurumen kalteak ekiditea". Horregatik, uste dute "larrialdi klimatikoari aurre egiteko eman beharreko pausoak ahalik eta ekimen kontsentsuatu eta publikoenak bideratzeko" eman behar direla. Halaber, gogora ekarri zuten Elgoibarko, Bergarako eta Soraluzeko Udalak eta Debemen eta Debegesa ari direla Elosua-Plazentzia Estazio Megalitiko eta bertako ondare naturala, kulturala eta geologikoa babesten eta bultzatzen, *Dolmenen Ibilbidea* proiektuaren bitartez.



### Ivan Morales eta Gaizka Trinidad, mus txapelketako irabazle



Euskal Herriko Mus Txapelketako Elgoibarko kanporaketa jokatu zuten zapatuan Tantaka tabernan, eta 13 bikotek hartu zuten parte. Ivan Morales eta Gaizka Trinidad izan ziren txapelak, eta Ibon Villanueva eta Zigor Bengoetxea, bigarren sailkatuak. Bi bikoteek Gipuzkoako finalean hartuko dute parte.

Mendaroko kanporaketa, bestalde, bihar jokatuko dute Aitz Beltz tabernan, 16:00etan hasita. Bikote bakoitzak 20 euro ordaindu beharko ditu parte hartzeko.

### Hilaren 18ra arte eman dezakete izena merkatariek 'Bizi bizixa' bonu kanpaina

Elgoibarko Udalak 'Bizi-Bizixa' bonu kanpaina berri bat jarri du abian, herriko merkataritza dinamizatzen eta biziberritzen jarraitzeko helburuarekin. 2022ko lehenengoa izango da, eta seigarrena, bonu kanpaina martxan jarri zutenetik. Kanpaina honetan 25.000 euro inbertituko ditu Udalak eta 3.300 merkataritza-bonu izango ditu. Herritarrek % 25eko deskontua izango dute egindako erosketetan. Bonuak erosketak egiten den unean bertan eskuratu beharko dira establezimenduetan, eta egindako gastuak gutxienez bost eurokoak eta gehienez 60 eurokoak izan daitezke. Aurreikuspenen arabera, bonuak apirilean egongo dira eskuragarri, eta 2022ko maiatzaren 13ra arte trukatu ahal izango dira kanpainara atxikitako dendetan, betiere dendak egun horretara arte bonuak baditu eta merkataritza-establezimenduetan erabili ahal badira.

Merkatariek martxoaren 18ra arteko epea dute kanpaina honetan izena emateko. Eskabideak elektronikoki aurkeztu behar dira Elgoibarko Udalaren web atarian ([www.elgoibar.eus](http://www.elgoibar.eus)), egoitza elektronikoen bidez, diru-laguntzen atarira sartuta eta eskuragarri dagoen formularioa erabilita.



## Anbulatorioaren zerbitzuak aurrez aurre jarri ditu EAJ eta EH Bildu

Elgoibarko 24/7 Plataformak anbulatorioan 24 orduko zerbitzua berriz emateko egindako eskariaren harira herriko bi alderdi politikok beren iritziak azaldu dituzte. Plataformak aurkezpenean esan zuen ez zeukala inolako interes politikorik, baina EAJk ezker abertzalearekin lotu du eta "argi eta garbi ikusten dugu eskaera hori aitzakiatzat hartuz botoak bilatzen dituela".

Alkateari "utzikeria leporatzen" diotela ere esan dute EAJtik, kasuan kasuko demanda osasun-agintaritzan eskudunaren aurrean defendatzeko orduan, haiek nahi duten formatuan eta moduan. Era berean salatu du ezker abertzaleak neurri ezberdinak erabiltzen dituela, Elgoibarko anbulatorioaren egoera salatuz eta beste herri batzuetan isilduz. Uste dute EH Bilduk Gipuzkoan alkatetza asko izan arren, gobernatzen dituen udalerrietan ez dela eskari hori Udal-agintariengana iritsi, Elgoibarkoa baino osasun zerbitzu okerragoa badute ere; sei kilometroko gure eremuan bi ospitale 24/7 larrialdi-zerbitzua baitute.

Anbulatorioko larrialdi zerbitzuari buruz Osoko Bilkuran onartu zuten mozioaren harira EAJk dio alkateak hartutako konpromisoa bete besterik ez duela egin: Udal-agintari modura dituen eskumenen barruan jardun, osasun-arloko aldarrikapenak despolitizatu eta sinatzaileen lekukoa jaso, kalitatezko zerbitzu eskuragarriak izaten jarraitzeko. EAJk gaineratu du alkateak Udalbatzarrean adierazi zuen bezala, oso zaila izango dela 24/7 formatura itzultzea, baina horrek ez duela esan nahi alkateak ez dionik ekingo zerbitzuaren hobekuntzari eta Covid aurreko prestakuntza berreskuratzeko konpromisoari.

Bestalde, EAJk adierazi du plataformak herriko alderdi politikoeekin bilera egitea proposatu zuela baina bilerarako pausorik ez duela eman oraindik.

### Maltzurki aritzea leporatu dio EHBilduk EAJri

EHBilduk "maltzurki" aritzea leporatu dio EAJri. 24/7 Plataformaren ekimenez, anbulatorioan 24 orduko zerbitzu bat berriro irekitzeko eskaerak 5.501 elgoibartarren babesa jaso zuen. Sinadurak "nahieran" erabili izana leporatu zion plataformak Ane Beitia alkateari, eta elgoibartarren "benetako" eskaera babestu beharrean, pandemia aurreko ordutegia berreskuratzea eskatu zuela. EAJk plataformari erantzun dio, eta erantzun horretan ezker abertzalearentzako mezua ere zabaldu du. Horren harira, EHBilduk beraien kontrako irainak salatu ditu. Alkateari eskatu diote Udalbatzan erabakitakoa betetzeko: "Alkateak bilatu behar duen helburua izan behar da herritarrek sinatutakoa eta Udaleko Osoko Bilkuran erabakitakoa: Etengabeko Arreta Gunea ahalik eta azkarren berreskuratzea. Etengabeko zerbitzua, ez EAJk asmatutako erdibideko zerbitzua". Politikakeriatan aritzeak herritarrekiko eta Udalbatzarekiko "mespretxua" adierazten duela gaineratu du abertzaleak: "Politikakeriak bide laburra du. Errealitate bakarra zera da, milaka herritarrek eskaera egin zutela eta Udalak horren aldeko erabakia hartu zuela. Eta EAJ-PNV abstenitu bazen ere, alkateak herriak erabakitakoa bete behar duela, ez bere alderdiak asmatutako beste ezer". EHBilduk dio osasun kontuak ez direla politikarekin nahastu behar: "Antza denez, EAJ, bere itsukerian, bere ezinean, ez da konturatzen 5.501 sinatzaileen artean iritzi guztietakoak daudela, beren eskaerak guztion ona islatzen duela eta inork ez duela sinatu politika irizitit, osasun beharretatik baizik". Azkenik, EH Bilduk konpromisoa hartu du milaka elgoibartarrek beharrezkotzat ikusten duten larrialdi zerbitzu publikoaren aldeko ekimenak babestu eta Udalbatzaren erabakiak diren bezalaxe gauza daitezen lan egiteko.



### Ikasketa feministei buruzko tesi onenaren saria jaso du Miren Guillok

EHUko Berdintasun Zuzendaritzak aurtengo Berdintasun Sariak banatu zituen martitzenean, eta horien artean Miren Guillok Arakistain elgoibartarrak jaso du IX. edizioako Micaela Portilla Vitoria saria, ikasketa feministei edo generokoei buruzko tesi onenaren atalean. *Hilekoaren politika eta kultura alternatiboaren etnografia bat: genero konfigurazioak, gorputz-ahalduntzea eta ezagutza kolektiboak* izenburupean egin zuen doktore tesia. Gizarte Hezkuntzan diplomaturia, Pedagogian eta Gizarte eta Kultur Antropologian lizentziatua eta Ikasketa Feminista eta Generokoetan doktorea da.

### Bullying egoerak gutxitzeko saioa, gurasoentzat

*Bullying egoerak minimizatzeko ingurune segurua nola sortu* hitzaldia antolatuko dute TREBA Gurasoak ekimenak eta Udalak, haur eta nerabeen gurasoentzako. Hitzaldiko trebatzailea Izaskun Lopez de Torre izango da, eta besteak beste, seme-alabentzako ingurune seguru eta babesleak sortzen laguntzea, eta egon daitezkeen arrisku-egoerak detektatzen eta identifikatzen ikastea izango da saioaren helburua. Martxoaren 17an izango da hitzaldia, 17:30ean, Aita Agirre Kulturguneko areto nagusian, euskaraz. Izena emateko: <https://labur.eus/bullying>

## ▶ OLAIA REVERT GODOY

IDAZLEA

Lan osasuneko erizaina da Olaia Revert (Mendaro, 1980) eta lan azterketak, lanpostuen egokitzapenak eta konfinamendu garaian isolamenduak dira bere lanerako gaiak eta besteak beste desgaitasunak dituen jendearekin aritzen da. Lana osasungintzan, baina letrek txikitatik eman diote berari osasuna, izan ere idazteko eta irakurtzeko zaletasuna izan du beti. Orain, liburu batean batu ditu bi gaiak desgaitasuna eta idazteko zein irakurtzeko zaletasuna. Bihar, martxoak 12, aurkeztuko du Mendaroko udaletxeko Udalbatzen aretoan *Goazen txangora!* liburua

- IRATI AGIRREAZALDEGI -



# “Liburua kaleratzeko nire motibazioa pertsonengan enpatia esnatzea izan da”

### ◆ Umetatik izan duzu gustuko irakurtzea eta idaztea, baina zeri buruz idazten zenuen?

Jendea harritu egin da liburu bat idatzi dudala ikusi duenean, baina beti idatzi izan ditut gauzak: haserre nagoenean, pozik nagoenean, metaforaren bat, eguneroko bizitzarekin alderatzeko zerbait bururatu zaidanean... eta dena gordeta daukat. Baita nire bizitzako kontakizunak ere, besteak beste nire gertaerak, adinekoen egoitzetan erizain ibili naizenean ikusitakoak, desgaitasun arloko jendearekin egindako gogoetak...

### ◆ Zerk piztu zuen zugar liburu idazteko gogoa?

Lan egiten nuen jende horrekin enpatia izan dut. Ikusi nuen zailtasun asko izan zituztela beren bizitzan eta pena sentitu nuen jendeak beste aldera begiratzen duelako eta pertsona horientzat errazago izango litzatekeelako laguntasuna izango balute momentu horietan. Nik uste dut enpatia falta dagoela gizarte honetan, eta ikasten badugu desgaitasunak dituen pertsona batek gaitasun asko ere badituela eta ideia hori zabaltzen badugu zerbait lortu dezakegula. Bestalde, lanean, konturatu nintzen jendeak ez zituela ondo ulertzen han egindako kartelak, beraz, irakurketa eta idazkera errazari buruzko ikastaro bat egin nuen. Orduan kartelak niri eskatzen hasi ziren eta pentsatu nuen nahaste bat egitea, batetik zailtasunak dauzkatenengana iristea eta bestetik liburuaren barruan desgaitasuna gai modura sartzea. Idatziak niretzat gorde nituen, baina ipuinak irakurri zituz-

ten hainbat gertukok esan zidaten aurkezteko. Hainbat argitaletxetara bidali ondoren, orain dela hilabete gutxi batzuk Beta argitaletxetik deitu zidaten lana gustatu zitzaiela eta argitaratzeko prest zeudela esanez eta pentsatu nuen mezua jendeari heltzea posible bazen, zergatik ez kaleratu.

### ◆ Ideiatik testura pasatzeko orduan zer behar izan du zure lehen liburuak zuk nahi zenuena izatera iristeko?

Liburu umeentzat izan zitekeela edo irakurtzeko zailtasunak dituztenek askotan umetasun puntua dutela kontuan hartuta aukeratu nituen pertsonaia errazak gurgildun aukian dagoen Hugo eta itsua den Naiara. Hortik bakarrik etorri zitzaidan idatzia sortzeko mezua bera argi nituen ideia horietan barnerratzeko gogoa eta motibazioa. Nire semeari eskatu nion esateko berak nola deskribatuko litzuzkeen pertsonaiak eta bere ideia horiek ere baliatu ditut ipuinetarako, beraz, bere partaidetza txiki bat ere egon da.

### ◆ *Goazen txangora!* liburuak bi ipuin jaso ditu bere baitan. Zer kontatzen dute ipuinok?

Ipuin batean Hugo da protagonista, txikitan izandako istripu baten ondorioz gurgildun aukian dagoena, txangoan joango dena ikaskideekin Elgoibarrera, San Pedrorra, eta han tximeletarik politenaren argazkia atera beharko dute bikoteka. Beste ipuinean txikitako gaixotasun bat dela-eta itsu dagoen Naiarak Mendaroko Santa Kurutz mendira lagunekin egindako irteera kontatu dut eta



## “Protagonistak zoriontsu dira eta hori transmititzen da, ez da tristura sortzen duen ipuin bat”

paisaia deskribatzeko lehiaketa egingo dute bikoteka eta ipuin honetan ere ikusiko da nola bizi duten berak eta inguruak irteera hori. Bukieran jaso dut jendeari ipuinokin helarazi nahi didan irakaspena.

### ◆ Protagonistak dira desgaitasuna duten umeak. Arlo horretan erizain jarduteak izan du horren arrazoia?

Beti izan dut desgaitasuna duten pertsonetik zein integrazioa behar dutenekiko sentiberatasun berezia. Nire lan arloan ezagutu ditut horrelakoak eta hori izan da idazteko aitzakietako bat.

### ◆ Horrelako ipuin batek irakurleari gai hauetara gerturatzeko balio diezaiokela uste duzu?

Liburu hau kaleratzeko nire motibazio bakarra da, hain zuzen ere, pertsonengan empatia esnatzea eta gizartearen bihotzetara iristea. Hau irakurri ondoren gogoeta egitea eta desgaitasunak edo ezintasunak dauzkaten pertsonengandik asko ikas dezakegula konturatzeko da helburua eta batez ere ez dugula beste alderia begiratu behar, baizik eta lagundu; eta laguntzarik behar ez badute gutxienez pertsona horiek ulertu.

### ◆ Irakurketa erraza jende gehiagorengana iristeko erabili duzu?

Irakurketa errazean sailkatutako liburua da eta hori garrantzitsua da jende guztiak izan behar duelako idazkera ulerterrazeko eskubidea. Hitz oso errazak erabiltzen dira, margen handiagoak, dena ezkerretara justifikatuta, ilustrazio asko, hitz zailxeagoren bat badago laukitxo batean esanahia... Baina ez da irakurtzeko zailtasunak dituztenentzat bakarrik, izan daiteke helduentzat, euskaraz lehen aldiz irakurtzen duenarentzat, irakurketa barneratuta ez duten haur eta gazteak irakurtzera bultzatzeko... Hala ere, liburu honen irakurketa errazari desgaitasunaren mezua gaineratu diot eta hori berria da eta badu bere garrantzia.

### ◆ Hala ere, desgaitasunaren gaiaren baitan zerbait ekiditen saiatu zara?

Ez, ez dut inolako filtrorik erabili denok baitakigu gurgildun aukidun batean dagoen edo itsua den pertsona baten atzean arrazoi bat dagoela. Ez ditut ipuinean sakon azaldu pertsonaien istripua edo gaixotasuna, pentsatzen dudalako ez dela beharrezkoa. Baina ez da izan saihestegatik, nire oinarritzko ideia beste bat izan delako baizik.

### ◆ Beraz, poztasun ikuskera ematen saiatu zara?

Bai, erabatekoa gainera. Nik irakurtzen dudanean eta ingurukoek ere poztasuna sumatu dute eta argialetxetik deitu zitadenean ere hau esan zidaten: “ez digu inolako penarik eman, zoriontasuna ikusi dugu pertsona horietan”. Desgaitasun txiki bat izan arren beren bizitza normala da eta protagonistak zoriontsu dira eta hori transmititzen da, ez da tristura sortzen duen ipuin bat.





*“Teknologia bidezkoak da jolas nagusiak eta ez du irakurzaletasuna errazten”*

◆ **Natura ere atsegin duzu eta handik jasotako sentsazioak libururako baliatu dituzu poztasun islada emanaz?**

Niretzako natura erreflexioa egiteko toki aproposena da eta beti idatzi izan ditut eta idatziko ditut naturaren inguruko bizipenak, ipuinak... Gainera, lehen liburua izanik Mendaroko eta inguruko mendiak aipatu nahi izan ditut, herritar izanik Mendaro izan dadin istorio hauen erdigunea. Pertsonaiak ere mendarorarik dira liburuan, baina ez dira errealak. Ezagutzen ditut itsuak edo gurgildun aulkian ibiltzen direnak, baina asmatutako pertsonaiak dira hauek, ez dira istorio errealak.

◆ **Ipuinak kontu arinekin lotzen ditugu, baina gero eta gehiago dira gai pisutsuak lantzen dituzten ipuinak ere. Zure ipuinetan bereziki zaindu duzu gai ezberdinen arteko oreka?**

Bai, nire ideiak argi zeuden hasieratik eta ahalegindu naiz bidea nahiko berdina izaten bi ipuinetan. Irakurlearentzat oso garrantzitsua da gorabeherak ez izatea eta mezua eta irakurketa konstantea izatea.

◆ **Irakurketa erraza bilduman kaleratu duzu irakurtzeko eta ulertzeko zailtasunak dituztenentzat delako. Baina zailtasuna al dago oraindik jendea irakurzaletasunera gerturatzeko?**

Bai, asko. Behar handia dago gainera. Mendaron, Arno Guraso Elkartetik proiektu bat dute irakurzaletasuna bultzatzeko eta oso garrantzitsua da. Izan ere, irakurketa asko galdu da eta hitz egiteko eta idazteko moduarekin lotuta dago eta arlo kulturean ere badu garrantzia. Gaur egun teknologia bidezkoak dira jolas nagusiak eta ez du irakurzaletasuna errazten. Hala ere, liburu hau, esaterako, e-bookean ere badago, jarduera errazteko, baina jendea irakurtzen jartzea da kontua. Gaur egun, gai zehatz bati buruzko informazioa lortzeko liburu beharrean *google* erabiltzen dugu, hori begiratu eta listo, jarraipenik gabe.

◆ **Ilustrazioak Beatriz Gonzalezenak dira. Ipuinetan irudiek eta istorioek pisu bera daukatela uste duzu?**

Beta argitaletxetik esan zidaten beraiek jarriko zidatela ilustrazio bat. Nik deskribatu nituen ilustrazioak, nik gidatu eta Beatriz Gonzalezek marraztu. Artista da berez eta niretzat ilustrazio bakoitza artelan bat da. Bera, gainera, aditua da natura eta animaliak marrazten. Nik irudietan islatu nahi nuena erraz ulertu du eta hala marraztu du. Irakurketa errazean ilustrazioek pisu handia dau-

kate. Istorioren kontaketa zati bat ilustrazio batek lagundu behar du pertsonak lotura egin dezan, beraz, erdia testua da eta beste erdia ilustrazioa.

Guztira hamaika ilustrazio daude eta nik uste dut toki aproposan. Nik tximeletak oso gustuko ditut eta baliatu ditu bere hainbat marrazkitan eta polita izan da hori. Santa Kurutzeko argazki batean, nire etxeko ipotx batean... islatutako hainbat marrazki ere egin ditu.

◆ **Ipuina norberak ala norbaitek beste bati irakurtzeko izaten dira?**

Gehien bat gurasoek eta umeek irakurtzeko da hau edo gusoak umeekin, baina behar gehien dutenak umeak dira. Umeen zat oso erraza izango da eta gurasoek irakurtzen badute ere mezu hori iritsiko zaie berdin. Guraso askok dute joera umei irakurtzeko lo egin aurretik eta momentu polita izateaz gain, mezua biek jasotzeko ere egokia da.

◆ **Aurrerantzean jarraitzeko asmoa daukazu? Badarabilzu ezer buruan?**

Bai, badaukat beste ideien bat, baina beti bide berean. Gainera, esan didate, honek jarraipena behar duela, *Goazen txangora!* liburuaren izenpean beste ipuin batzuk egin behar direla. Baina ez dut presarik, lehenengo ikusi behar dut liburu honek nolako harrera duen. Nire lehentasuna, euskalduna izanik, liburu euskaraz kaleratzea zen eta hala egin dut lehenengo, baina gaztelaniarako itzulpena ere nik egin dut eta Bilboko liburu azokarako kaleratzea espero dut. Jakin badakit liburu hau gaztelaniaz plazaratuz gero, gehiago zabaltzeko aukera dagoela eta nire helburua ideia bera zabaltzea denez, hori ere kontuan hartu dut. Aurrerantzean ere ipuinak idazten jarraitzeko asmoa daukat, baina aurrez irakurleek liburu honi buruz emandako iritziak jasota. E-posta helbide bat jarri dut (*goazentxangora@gmail.com*) irakurleek esateko gustuko izan duten ala ez, zerbait aldatuko laketan, liburuak eskatzeko...

Nik espero dut esatea gauza hunkigarria dela eta bide horietatik jarraitzeko, baina niretzako kritikak ere garrantzitsuak dira eta beti laguntzen dute gauzak konpondu eta aurrerapausoak ematen. Bestalde, norbait identifikatuta sentitu bada onerako edo txarrerako jakitea gustatuko litzaidake.





# 'Oinak lurrean'

## kanpaina abiatu du Errigorak

Hemen da berriz Errigoraren *Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura* kanpaina. Martxoaren 10etik 30era oliba-olio birjina estra —ontzi handietan— eta kontserba, arroz, pasta eta lekale-sortak —12 aleka— eskatu ahal izango dira, euskaraz etiketatuta eta, auzolanari esker, ekoizlearen jatorrizko prezioan. Oraingoan erabiliko duten lema 'Oinak lurrean' izango da, asmo handiak dituzten arren, modu errealista eta praktikoan, oinak lurrean dituztelako, hain zuzen ere.

Udaberriko kanpaina abiatu du Errigorak, eta azken urteotan bezala, agroekologiaren aldeko apustua egin dute. Olibaolio birjina estraren kasuan, ekologikoak ez diren hiru aukera eskaini dituzte (enpeltre, arbekina eta pikual), eta ekologikoan, ostera, bertako arroitx bariatateaz eta arbekinaz gain, bi litroko bi bidoiz osatutako sorta berria. Kontserben kasuan, bederatzi produktu izango dira ekoizpen ekologikoan (zainzuri zuriak, pikillo piperrak, orburuak, kardua, barazki-menestra, orri-mamiz eta borrajaz osatutako barazki-sorta, tomate frijitua, barazki-kremak eta txitxirioak) eta ekologikoak ez diren zazpi (zainzuriak, pikillo piperrak, orburuak, kardua, potxak, barazki-sorta eta tomate frijitua). Horrez guztiaz gain, arroz ekologikoa eta ez ekologikoa eta pasta ekologiko sorta ere izango dira aukeran. Aurten, lehen aldiz, lekale ekologikoak ere eskainiko dituzte: seina pakete dilista eta txitxirioz osatutako sorta.

Eskaerak martxoaren 10etik 30era egin behar dira, eta bi bide daude horretarako: Online, *errigora.eus* webgunean, eta telefonoz 848 871 223 zenbakira deituta.

Banaketa apirilaren azken astean eta maiatzaren lehenengoetan izango da.



| 2021eko kanpaina datuetan |                    |
|---------------------------|--------------------|
| 8.200                     | etxe               |
| 109.000                   | litro olio         |
| 245.000                   | ortz kontserba     |
| 30.000                    | pakete arroz/pasta |

**martxoak 10 - 30**

**Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura**

# Oinak lurrean

Oliba-olio birjina estra, kontserbak, arroza, pasta eta lekaleak euskaraz etiketatuta eta ekoizlearen jatorrizko prezioan.



**Bete ezazu despentsa urte guztirako**



**errigora.eus**





## Martxoak 8, egunero eta elkarrekin

Emakumeek hartu zituzten Elgoibar eta Mendaroko kaleak martxoaren 8an hitzez, oihuz eta kolore morez. Ospakizun eta aldarrikapen eguna izan zen martitzena eta martxoan barrena emakumeekin lotutako ekintzarik ez da faltako: argazkiak, ipuinak, musika, antzerkia... Baina-martitzeneko elkarretaratze eta manifestazioak izan ziren deigarrienak, horietan aldarrikatu baitzituzten emakumeen eskubideak eta berdintasuna. Emakumeen elkartasunari keinu eginez infinitu ikurra irudikatu zuten Elgoibarren: Elkarrekin, infinituraino! leloa kaleratuz. Martxoaren 8a, Emakumeen eguna egunero dela ere gogoratu zuten guztiek bateratuta. **Argazkiak eta bideoak: barren.eus**










## 'Me too' emakumeak indarkerien lekuko



Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira aste honetan hainbat ekintza egin dituzte eta martxoa emakumeen hilabete bihurtuko duten ekitaldi eta jarduerarik ez da faltako datozen egunetan ere. Kontzertu, antzerki, bakarrizketa, hitzaldi, tailer, tertulia zein afari emakumeen gaia landu eta bizitzeko modu ugari izango da.

Narrutsikek, Elgoibarko Emakume Feministen Taldeak ere hausnarketarako espazioak sortzeko helburuarekin hainbat jarduera antolatu ditu. Horietako bat da, hain zuzen ere, *Me Too* proiektuaren aurkezpena. Elgoibarko batxilergoko 25 ikasle inguruk azaroaren 25aren (Emazteen aurkako indarkeriaren kontrako eguna) bueltan egin zuten lana da *Me Too*. Ikasleek bildu zituzten hainbat emakumek jasandako erasoen testigantzak eta txukun ipini eta ondorioak atera ostean, kaleko hormetan ikusgai ipini eta orain liburuxka batean bildu dituzte. Herriko ikastetxeetan ari dira egindako lana aurkezten eta bihar Sutegixan azalpenak eman ondoren, beste aurkezpen batzuk ere egitekoak dira.

Beren psikologiako irakasleak, aurreko ikasturtean, gai honen gainean egindako proiektu bat aurkeztu zien eta hori eredu eta motibazio izan zen batxilergoko ikasleentzat proiektuarekin hasteko. Inkesta anonimo bitartez jaso zituzten testigantzak eta sailkatu ondoren galdeketa horren ondorioak atera dituzte.

Asko izan dira ondorioztatutako kontuak, baina proiektuan parte hartu duen Leire Sasiainek esan duenez, "nabarmenezkoa da neskek oso gaztetatik jasotzen dituztela eraso matxistak; kalean beraiei egindako komentarioak eta esamesak batez ere eta oso gogorra iruditu zaigu 10-11 urte dituztenetik horrelakoak bizi beharra". Azpimarratu duten beste kontu bat eraso matxistekiko duten ezjakintasuna da. "Askok ez dakite identifikatzen noiz den eta zergatik den indarkeria matxista. Galdeketa erantzun aurretik neska batek baino gehiagok esan dizkigu kalean gertatutakoak edo han entzundakoak, baina ziur jakin gabe horiek eraso matxistak al ziren eta idatzi behar ote zituzten. Baina hori da, hain zuzen ere, beraiek jakin beharrekoa, indarkeria identifikatzen eta hori gertatu izanaren errua beraiena ez dela argi izaten. Hau gatzetxoekin gertatzen baita gainera".

Emakumeen inguruko gaien artean badago zer ikasi ugari eta ikasiz zein irakatsiz gazteek ere eman dituzte hasierako pausoak.

## Emakumearen hilabetea, Elgoibarren eta Mendaron

### 11 BARIKUA

**Arratsaldean**, Emakumea eta zinema eta zientzia. Mendaroko gaztelekuan.

**19:00** Kontzertua: Maite Larburu. Elgoibarko Herriko Antzokian.

**19:00** Bakarrizketa: *Corazon de campeona*. San Agustinen, Mendaron.

### 12 ZAPATUA

**17:00** Berdintasunerako hiztegia eta hizkuntza inklusiboa. Mendaroko gaztelekuan.

**19:30** 'Me too' proiektuaren aurkezpena. Narrutsik talde feministak aurkeztuko du Sutegixa gaztetxean. Segidan, afaria egingo dute.

### 15 MARTITZENA

**18:30** Hitzaldi-tailerra: *Lo que no te han contado*. Mendaroko udal-etxean.

### 18 BARIKUA

**19:00** Antzerkia: 'Yo, la peor del mundo'. Elgoibarko Herriko Antzokian.

### 20 DOMEKA

**10:00** Dantza-tailerra, emakumeentzat. Lilan.

### 26 ZAPATUA

**19:30** Tertulia eta kontzertuak. Narrutsik talde feministak antolatuta. Sutegixa gaztetxean.

### 28 ASTELEHENA

**18:00-20:00** Emakumeen hausnarketarako gunea: 'Zoru itsaskorra'. Lilan.





## 1942

Aste honetako erretratu zaharra Julen Zabaleta 'Yulen' marrazkilariairen argazki artxibokoa da. 1942ko erretratu da, eta Txiki Egunean aterata dago. Kinto bazkaria egin zuten egun hartan koadrillako lagunek, denak 1921ean jaiok ziren. Txankakua zubian aterata zuten argazkia, eta dotore jantzita zeuden lau lagunak. Erretratu hau ikusita, garai hartako Txiki Eguna gaur egungoarekin alderatuta oso bestelakoa zela esan daiteke. Argazkiko lau lagunak hilda daude, azkena, Julen Zabaleta bera hil da oraintsu, otsailaren 26an.

**Ezkerretik eskumara:** Ramon Maiztegi, Jose Mari Ansola, Amadeo Mujika eta Julen Zabaleta.



**PINTURA ETA DEKORAZIOA**  
**CORDON VILARCHAO**  
 cordonvilarchao@telefonica.net  
 San Roke, 7 - Olasope, 18, Pab. 25-26  
**943 740 570 / 636 986 162**

Jon Aranao  
 Guillermo Torres



Elgoibar  
 Albaitaritza

San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)  
 Tel.: 943 740 704 - 639 047 337  
 Astelehenerdik ostiralera: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30  
 Larribatak: 11:00 - 13:00

Itzopindegi zerbitzua daukagu.  
 Deitu ardua hartateko.

Gizur-poltsas izan: Gezurti handia izan. *Gizur-poltsas haiz.*

## Joseba Irazokik emandako musika eskoletan hartu dute parte herriko musikariek



Elgoibarko Musikarien Elkartek (EME) antolatuta, master class-a eman zuen Joseba Irazokik eguaztenean. 50 bat lagun batu ziren Inazio Bereziartua musika eskolako auditoriumean, musikazaleak denak eta musikariak asko. Berako musikariak bere ibilbide oparoan ikasitako hainbat teknika irakatsi zizkien gitarra eskuetan zuela, teoria eta praktika uztartuz. Arregloak egiteko teknikak eta gomendioak, berak sarrien erabiltzen dituenak, abestietan behin eta berriz errepikatzen diren oinarriak, soka desberdinekin egin daitezkeen konbinazioak, gitarraren mastila erabiltzen hobetzeko teknikak... gitarra jole trebea izateko egin beharreko ariketa sorta azaldu zuen Irazokik, "Euskal Herriko musikari, eta bereziki gitar jole erreferentea" saioaren aurkezpena egin zuen Jon Gurrutxagaren berbetan. EMEk antolatu duen lehen saioa izan da honakoa, baina gehiago iragarri dituzte datozen asteetarako. Apirilaren 6rako Freddi Pelaez grabazio ingeniariaren hitzaldia antolatu dute. Eta, apirilaren 30erako EME Eguna antolatu dute. Elkarteko zazpi taldek hartuko dute parte Maalan egingo duten kontzertuan.

## Maite Larburuk kontzertua emango du gaur

Maite Larburu musikariak kontzertua emango du gaur, martxoaren 8aren harira antolatutako ekintzen barruan. Biolina musika klasikoaren ildotik ikasi ondoren, antzinako musika edo mugimendu historizistan espezializatu zen Amsterdameko Kontserbatorioan, eta Europa erdialdeko hainbat taldetan egin du lan azken 15 urteetan. Hala ere, biolina ez da Larbururen sormen lanabes bakarra: musika tresna desberdinen eta hots-hitz-armonien tarteak arakatzen ditu, eta lau disko plazaratu ditu kantugile moduan: hoietako bi Neighbor bikotearen izenpean eta beste biak bakarka (*Hezurraren azpian* eta *Krak*). Herriko Antzokian arituko da gaur, 19:00etatik aurrera.



## Manolo Zabala hil da, Elgoibarko Izarrako presidente izandakoa

1974an Elgoibarko Izarra kultur elkarteko presidente izan zen Manolo Zabala. *Euskaldunak Elgoibarren* libururako elkarrizketa egin zioten 2014an eta han azaldu zuen bere ardura nagusia Ikastolari lotutakoa izan zela. Alde batetik bestera maisu-maistra bila ibiltzen zen eta Ikastolako diru kontuak zuzentzeko sistema ere bere taillerretik hartu zuten. Aubixarako literak ere Santurtzitik kamioian ekarri zituztela kontatu zuen Zabalak. Joan zen astean hil zen, 92 urte zituela.

## 'No somos nada' dokumentala, hilaren 16an

Ongarri zineklubak antolatuta, La Polla Records taldeari buruzko *No somos nada* dokumentala ikusteko aukera izango da hilaren 16an, Herriko Antzokian. Javier Corcuera (Lima, 1967) zinemagileak zuzendutako filma da, eta iaz estreinatuta zuten, Donostiako zinemaldian. Evaristo Páramos La Polla Records taldeko abeslaria da protagonista nagusia, eta taldearen 40 urteko ibilbidea laburbiltzen du.





## Apirilaren 7ra arteko epea izango da Gotzon Garate beka deialdian aurkezteko

Elgoibarko Udalak Gotzon Garate bekaren deialdia jarri du abian eta ikerketarako gaia honako hau izango da: hizkuntza aniztasuna Elgoibarren: jatorri atzerritarreko bizilagunak eta euskara. Ikerketa lan honen helburu nagusia da Elgoibarren bizi diren jatorri atzerritarreko pertsonen euskara eta euskal kultura jaso eta ulertzeko dituzten moduak aztertzea. Baita ere identifikatzea kontuan hartu beharreko gakoak hizkuntza integrazioan laguntzeko, etorkizunean egin litezkeen esku-hartzeetan.

Beka norbanakoek zein lantaldeek eskatu ahal izango dute. Eskatzaileak erdi edo goi mailako unibertsitate titulua eta EGA edo agiri baliokideren bat izan behar ditu. Bekaren gehieneko iraupena zortzi hilabetekoa izango da, eta zenbatekoa, berriz, 10.000 eurokoa. Ikerketa lana euskaraz egiteaz gain, originala eta argitaratu gabea izan behar da eta Udalaren ardurapean egingo du bekadunak.

Bekarako proposamenak aurkezteko azken eguna apirilaren 7a da eta eskabideak eta gainerako agiriak Elgoibarko Udalaren Herritarrentzako Arreta Bulegoan edo modu telematikoa aurkeztu ahal izango dira [www.elgoibar.eus](http://www.elgoibar.eus) webgunean, 'Gotzon Garate Bekaren IV. deialdia' erreferentzia jarrita. Webgunean eskura daitezke deialdiaren oinarriak eta informazio gehiagorako Elgoibarko Udalaren Euskara Sailera jo behar da, 943 744 366 zenbakira deituz edo [euskara@elgoibar.eus](mailto:euskara@elgoibar.eus) helbidera idatziz.

Bekaren lehen deialdian Elgoibarko Toponimia aztertu zuten; bigarrenean, Elgoibarko euskarazko ondarea gizarteratzeko egitasmoak edo euskarriak proposatu ostean, [www.elgoibarreraz.eus](http://www.elgoibarreraz.eus) ataria jarri zuten abian; eta hirugarrenean Elgoibarko Izarrak eta Elgoibarko Udalak elkarlanean antolatutako *Euskara ala Ezkara* zikloek emandakoa jaso, aztertu eta gizarteratzeko lan-plana egin eta [www.euskaraalaezkara.eus](http://www.euskaraalaezkara.eus) ataria ipini zuten martxan.

## 'Yo, la peor del Mundo' ikuskizun musikala izango da martxoaren 18an Herriko Antzokian

Martxoaren 8aren harira emakumeen inguruko hainbat jarduera eta emanaldi antolatu dituzte eta datorren barikuan, martxoaren 18an, ikuskizun musikala eskainiko du Vaiven produkzioak antzerki taldeak. 19:00etan izango da, Herriko Antzokian.

Antzezlanak, aske izateko, egoera eta pertsona guztiei aurre egiten dien emakume baten bizi-modua azalduko du gaurkotasan biziz. Bere garairako aurreratua izanik komentura sartu zuten eta Sor Juana Ines de la Cruzek bere poesiararen indarrez liluratuko ditu guztiak. Ikuskizun honek bizinahia islatuko du, kolorez, musikaz, edertasunez eta bere garairan (XVII. mendea) jenioa izan zen emakume baten irudimenez, gaur eguneko ikusleak ere harrituz. Musikak ezezik umoreak, melodrama erromantikoa eta tragediak bat egingo dute emakumeen askatasuna aldarrikatuko duen lanean.



## Motxaila Eguneko bazkarirako tiketak salgai

Mendaroko Motxaila Egunean bazkaria izango da eta tiketak jadanik salgai daude, 12 eurotan, Lagun Betikoak tabernan. Salmorejoa, ijito potajea eta ijito besoa izango dira bazkaritarako eta ura, sagardoa eta ardoa edateko, baita kafea ere. Umeentzako menua bost eurokoa izango da: makarroiak tomatearekin, ijito besoa eta ura.

## Musika eskolako talde instrumentalak datorren astean

Hiruhilabete bukaeran egin ohi duten moduan Inazio Bereziartua Musika Eskolako talde instrumentalek kontzertuak eskainiko dituzte datorren astean. Martxoaren 14an eta 15ean izango dira saioak 19:30ean, Musika Eskolako auditoriumean. Askotariko taldeak arituko dira eta baita instrumentuak ere, guztira, bi egunetan 15 bat talde. Musikariek elkarrekin ikasitakoa jendaurrean erakutsiko dute.

## Aurresku Txapelketa Herriko Antzokian domekan

Elgoibarko Herriko Antzokia izango du eszenatoki gazte mailako gipuzkoar erako auresku txapelketako hurrengo saioak, domekan, martxoaren 13an 11:00etan. 13, 14 eta 15 urtekoek *Betronio haundia* eta *Desafioa* dantzatuko dituzte eta 10, 11 eta 12 urtekoek *Hondarribia haundia* eta *Segurako zortziko zaharra*. Elgoibar eta Mendaroko dantzari hauek hartuko dute parte txapelketan: Malen Galarraga, Nerea Galindo, Duna Santos, Irene Toledano eta Elaia Etxaniz. Antolatzaileek txapelketa ikustera eta dantzariak animatzera gonbidatu dituzte herritarrak.



## Sei kilometroko entrenamendu saio berezia egin zuten Elgoibarko Master Igeri Taldekoek Donostian

Urtean behin Donostiako Paco Yoldi igerilekura irteera antolatzen dute Elgoibarko Master Igeri Taldeko kideek, 50 metroko igerilekuan entrenamendu saioa egin ahal izateko. Sei kilometroko entrenamendua egin zuten, eta horrelako entrenamendu saio gogorra egin ahal izateko, azken hilabeteetan "prestakuntza bortitza" egin dutela azaldu du Seber Uribe entrenatzaileak. Guztira 40 bat lagun joan ziren Donostiara. "Elgoibarko jendeaz aparte, beste herri batzuetakoek ere hartu zuten parte. Jendearen erantzuna oso ona izan zen eta giroa aparta".

## Julen Urruzola junior mailako Espainiako selekzioarekin arituko da Frantzian jokatuko duten nazioarteko eskubalo txapelketan



Junior mailako Espainiako eskubalo selekzioak Hiru Nazioen Torneoan parte hartuko du Pessac-en, Frantzian, martxoaren 17tik 19ra bitartean. Etxeko selekzioaz gainera, Portugalgoa ere izango du aurkari Espainiako taldeak lagunarteko nazioarteko txapelketan. Martxoaren 17an jokatuko dute Frantziaren kontra eta 18an Portugalen aurka. Rodrigo Reñones hautatzaileak hamasei jokalaririk sartu zituen deialdian, horien artean Bidasoa Irun taldeko lau jokalaririk: Gorka Nieto (Basauri, 2002), Eneko Furundarena (Usurbil, 2003), Julen Mujika (Errenteria, 2003) eta Julen Urruzola (Elgoibar, 2002). Txapelketa hau joan den urtarrilean jokatzeak ziren arren, atzeratu egin zuten Covid-19aren pandemiagatik.

## Olaizagako rokodromoa berritzeko lanak hasiko dituzte

Martxoaren 14tik 18ra bitartean egingo dituzte Olaizaga kiroldegian dagoen rokodromoa berritzeko lanak. Sector Vertical enpresak, mota horretako instalazioetan segurtasuna bermatzeko bitartekoak egokitu eta hornitzen espezializatuta dagoenak, rokodromoko horma bertikalean elkarretartzeko 12 pieza berri jarriko ditu, 50 zinta finko, ainguraketa-txapa guztiak ordezkatzeko ditu eta eskaladan hasteko hiru ibilbide berri prestatuko ditu. Bide bakoitzak kolore ezberdina izango du, eta 150 presa berrirekin hornituko dute rokodromoa: berdea, hasiera mailako bide erraza bertikalean; horia, hasiera mailakoa inklinazioarekin; eta gorria, hasiera mailako bide erraza presa handiagoekin eta inklinazioan presa kamutsekin. Aipaturiko lanak egiteko aurrekontua 8.000 eurokoa da, BEZ barne. Aste horretan, 14tik 18ra, ezin izango da rokodromoko hormara sartu eta 16:00etatik aurrera bakarrik erabili ahal izango da boulderra. Udal Kirol Patronatuaren asmoa da apiriletik aurrera eskaladan hasteko ikastaroei berrekitea. Interesatuak informazio gehiago jaso dezakete Olaizaga Kiroldegiko Herreran, 943 744 415 telefono zenbakira deituta edo [olaizagaharrera@hotmail.es](mailto:olaizagaharrera@hotmail.es) helbidera idatzita.





## Mendaroko kirol azpiegituren azterketa egingo dute

**M**endaroko Udalak jakinarazi du herriko kirol azpiegituren azterketa abiatuko duela, eta horretarako herritarren kolaborazioa eskatu du. "Herritarrek gero eta gehiago eskatzen dute norbere udalerrian kirol-instalazioen eskaintza nahikoa izatea, jarduera horrek lotura estua baitu bizi-kalitatearekin edo bizitza osasungarriarekin". Iñaki Arregi alkateak adierazi du Udal Gobernuak Kirol Instalakuntzen Mapan aurrerapausuok eman nahi dituela, baina horiek, herritarrekin adostuak izatea nahi dutela. "Herritarrek zehaztea zein diren beharrak, zein kirol instalakuntza nahiko luketen, kirol taldeek duten indarra... Horren arabera, zehaztuko ditugu aktuzioak. Helburua da herritarrei kalitateko kirol instalakuntzak eskaintzea kirola era erosoan praktikatu dezaten. Herritarren iritzia jasota, analisi zehatza egingo da eta inbertsio programa zehaztu, urtez urte garatzen joateko, elkarlanean, etorkizuneko Mendaro eraikiz". Informazioa batzeko 12 urtetik gorako mendarorarentzako inkesta bat prestatu dute; eta, ikastolako ikasleei zuzenean galdetuko diete, ikastetxeko zuzendaritzarekin lankidetzan. Inkestari erantzuteko bi bide daude: batetik, galdetegi bat bidaliko dute Mendaroko etxebizitza guztietara, herritarrek iritzia eman eta eraikin publikoetan entregatu ahal izateko: Udala, Goñati gimnasioa eta Jubilatuen Biltokia; bestetik, online bidezere bete ahal izango da galdetegia [www.mendaro.eus](http://www.mendaro.eus) webgunean. Erantzuteko epea apirilaren 1ean amaituko da.



-----

## Urrezko hiru domina Paula Calvorentzat Euskal Herriko infantil mailako igeriketa txapelketan

Infantil mailako Neguko Euskal Herriko Txapelketan parte hartu zuen Paula Calvo igerilari elgoibartarrak, eta urrezko hiru domina eskuratu zituen. Tolosako Usabal igerilekuan jokatu zuten txapelketa, otsail bukaeran. Paula Calvok Eibar Igerixan taldea ordezkatzuz igeri egin zuen txapelketan eta lehiatu zen hiru lasterketetan gailendu zen: 400 metro librekoan, 1.000 metro librekoan eta 1.000 metro bizkar estiloko proban.



-----


## Balmasedako mendi bizikleta proba irabazi du Iñigo Larizek



Iñigo Larizek ezin hobeto hasi du mendi bizikleta proben denboraldia. Euskal Herrian jokatzen diren mendi bizikleta txapelketarik garrantzitsuenetarikoa da Green Series XCO, BTTko modalitate olinpikoan jokatzen den proba; eta, bederatzi lasterketaz osatutako txapelketa Balmasedan hasi zen, martxoaren 6an. Gobike taldeko Iñigo Lariz primeran moldatu zen lokaztutako zirkuitura eta bera izan zen azkarrena 30 urtetik gorakoen kategorian.

## Igor Torres 11. postuan sailkatu zen Bilboko Maratoian

Bilboko lehendabiziko Maratoia jokatu zuten domekan, eta mila korrikalari baino gehiago lehiatu ziren Bizkaiko hiriburuan prestatu zuten 42 kilometroko ibilbidean. Zapaniah Kipyego keniarra gizonezkoetan (2.12: 48) eta Maria Mercedes Pila ekuadortarra (2.47: 18), emakumezkoetan, izan ziren azkarrenak. Igor Torres elgoibartarrak ibilbidea batera gustatu ez bazitzaion ere maratoi bateko bere marka pertsonal onena egin zuen eta denbora horri esker 11. postua eskuratu zuen sailkapen nagusian, eta bigarren Master 40 kategorian. "Hurrengo denboraldian saiatuko naiz maratoiko marka hobetzen, beste nonbaiteko maratoiren batean", esan du.



**LANA.....**

**Eskaerak**

Adinekoak zaintzeko prest. Gavez, asteburuetan edo etxeko langile moduan. Esperientzia eta beharrezkoa den titulua dauzkat. ☎ 602 490 595

Edozein lan egiteko prest nago, goizez edo asteburuetan. ☎ 643 071 900

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Esperientzia daukat. ☎ 643 411 292

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago, orduka. Esperientzia daukat. Berehala hasteko prest nago. ☎ 632 415 374

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka edo etxeko langile moduan. Zaintza titulua daukat eta esperientzia ere bai. Euskalduna naiz. ☎ 626 490 986

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Titulua daukat. ☎ 631 229 408

Adinekoak edo mendekotasun egoeran dauden pertsonak zaintzeko prest nago. Gavez ere lan egiteko prest. ☎ 631 070 934

Adinekoak zein umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka, asteburuetan ere bai. Berehala hasteko prest. ☎ 641 425 237

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka edo etxeko langile moduan. ☎ 631 425 686

Adinekoak eta umeak zaintzeko edo garbiketarako egiteko prest nago. ☎ 658 273 486

**Eskaintza**


Zerbitzaria behar da, asteburuetan lan egiteko. ☎ 659 539 861

**Zer iruditzen zaizu BARREN?**

**BARRENI buruzko inkesta**

Inkesta honen bidez, BARREN KOMUNIKABIDEARI buruz duzun iritzia jakin nahi dugu. Minutu gutxi batzuk baino ez dituzu behar. Mila esker zure denboragatik! Inkesta anonimoa da, baina zure profila hobeto ezagutzeko datu gubi batzuk eskatuko dizkizugu. Egon lasa: inkesta honi buruzko zerbait publikatzen badugu, erantzun multzoak izango dira, ez banan-banakoak.

Sartu [barren.eus](http://barren.eus)-en eta egin klik bannerrean





**administradores**

Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Finanzas  
Euzkoaldea (Euzko) Administrazioaren Erakunde Komunitarioa



**ROSA Ma PINTADO**

*Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749*

**660 969 679**  
[rosapf@telefonica.net](mailto:rosapf@telefonica.net)

**Etxejabeek ordaindu behar ditugu terrazai dagozkien gastuak, ala komunitateak?**

Ez da kontuan hartu behar terrazaren titulartasun pribatua edo komuna, baizik eta egin beharreko gastuen jatorria. Erabilera eta mantenu gastu arruntak izanez gero, terraza erabiltzen dutenen esku egongo lirateke gastuak. Gastuak ohiz kanpokoak badira eta terraza elementu komuntzat hartzen bada -estaldura elementua izanik egitura funtzioa betez gero-, denek ordaindu behar dute konponketa. Lege gehienek diote etxebizitzetako titularrak egin behar direla konponketa gastuen kargu, terrazak beraiak erabiliko dituztelako eta beren eremu eta zoladurari eragiten diotelako. Etxejabeen komunitateak, berriz, terrazak egoera onean mantentzeko lanak egin beharke litzuzke: inpermeabilizazioa, isurbide aldaketak... baldin eta kalteak terrazak dauden maila bereko etxebizitzetako jabeek eragindakoak ez badira. Hainbat kasutan elementu komun hauek ez dira zaindu bizilagun guztienak balira bezala, pribatu modura baizik. Baina terraza gisako elementu komun batek ez du izaera komun hori galduko ez zaindu arren. Izan ere, jabetza pribatua, ez dago hedatuta, gune pribatuaren barruan egon arren, jabeari propio balio ez dioten arkitektura elementuetara, baizik eta berez komunak diren eta beti zaindu behar diren etara.

**Aholkua: Legearen arabera, etxejabeen komunitatea arduratu behar da eraikinaren eta honen zerbitzuen mantenuaz eta zaintzaz. Beraz, eraikinaren estankotasun, bizigarritasun, egitura eta segurtasun baldintzak ziurtatzeko beharrezko lanak komunitateak egin behar ditu.**



**AHOLKULARI KOLABORATZAILEA**  
San Bartolome, 2





## ZORIONAK

Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak)  
baino lehen ekarri behar dira BARRENEKO bulegora,  
[barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) e-postara edo

☎ 688 634 044 bidalita.



Zorionak, **Aneke**, maizia!  
7 urte haundi!  
Muxu potolo bat  
etxeko danon  
partez.



Zorionak, **Maite**,  
etxeko denon  
partez zure 11.  
urtebetetzean!  
Muxu handi bat!



Zorionak, **Lara**,  
zure urtebetetzean!  
Jarraitu orain bezain  
jator eta alai.  
Muxu handi bat  
famiariakoen partez.



Zorionak, **Maren!**  
lgandean 7 urte!  
Ondo ondo  
pasa eguna eta  
7 patxito handi!



Zorionak, **Telmo** eta **Iñigo!**  
Marxoaren 16an, 10 urte!!!  
Muxu handi bat  
famiariakoen eta bereziki,  
Antxon eta Nerearen partez.



## MEKANOSA

Errosario, 27  
Tel: 943 740 284 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA
- ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIAGAILUAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA
- MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

## EXPRESS ESKAINTZAK!

### SAMSUNG WW90T534DTT/S3 ARROPA GARBIGAILUA



449 €

- 9 kg.-ko karga
- WI-FI
- 1400 bira minutuko
- Autodosifikazioa

# MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - [bire@milar.es](mailto:bire@milar.es)

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

## GOTZON GARATE BEKAREN IV. DEIALDIA

- ▲ **GAIA:** Elgoibarrera bizitzera etorri diren jatorri atzeritarreko bizilagunek euskararekiko eta euskal kulturarekiko dituzten pertzepzioak aztertzea eta hizkuntz integrazioan laguntzeko, etorkizunean egin litezkeen esku-hartzeetan kontuan hartu beharreko gakoak identifikatzea.
- ▲ **OINARRIAK:** [elgoibar.eus](http://elgoibar.eus) atarian, Euskara Sailean (943744366) edo [euskara@elgoibar.eus](mailto:euskara@elgoibar.eus) helbidean.
- ▲ **ZENBATEKOA:** Bekaren zenbateko osoa 10.000 eurokoa izango da.
- ▲ **IRAUPENA:** Lana egiteko epea 8 hilabetekoa izango da, beka adjudikatzen den egunetik hasita.
- ▲ Lana euskaraz aurkeztuko da.
- ▲ Proposamenak bidaltzeko azken eguna: apirilak 7.
- ▲ **Lekua:** HAZ (Santa Ana kalea 2) eta modu telematikoa [elgoibar.eus](http://elgoibar.eus) atarian.
- ▲ **ERREFERENTZIA:** Gotzon Garate bekaren IV. deialdia



## 12 ZAPATUA

**12:00** Liburu aurkezpena: Goazen txangora! Idazlea: Olaia Revert. Ilustratzailea: Beatriz gonzalez. Mendaroko udaletxeko Udalbatza aretoa.

**16:00** Euskal Herriko mus txapelketako Mendaroko kanporaketa. Aitz Beltz tabernan.

## 13 DOMEKA

**11:00** Auresku txapelketa. Inazio Bezeziartua musika eta dantza eskolak antolatuta, Herriko Antzokian.

## 14 ASTELEHENA

**19:30** Talde instrumentalaren kontzertua. Musika Eskolako auditoriumean.

## 15 MARTITZENA

**19:30** Talde instrumentalaren kontzertua. Musika Eskolako auditoriumean.

## 17 EGUENA

**17:30** Hitzaldia: 'Bullying egoerak minimizatzeko ingurune seguruak nola sortu'. Treba elkarteak eta Udalak antolatuta. Aita Agirre kulturgunean. Euskaraz.

## Zinea (Herriko Antzokian)



### 'La vida era eso'

12 zapatua: 19:00 / 22:15

13 domeka: 19:00

14 astelehena: 21:00

### 'Ainbo' (Euskaraz)

13 domeka: 16:30

### 'No somos nada'

(Ongarri zinekluba)

16 eguaztena: 21:00

## ETA, DEBABARRENEAN ZER?

### 'EROTIK, BEROTIK, ZEROTIK' MARTXOAK 15, 19:00ETAN, EIBARREN

Hiru emakume heldu. Behin, batek, kontu berri bat ekarri zien; bizilagunak. Kontu honen aitzakiarekin uste gabeko gau ederra pasako dute. Erotika eta umorea elkartuz sortutako ipuin kontaketa, helduentzat. Ipuin ezberdinek osatzen dute: herrikoiak eta egungo idazle batzuenak. Arrate kultur elkartearen topalekuan.

**LAGUNAK**  
colchoneria textil hogar

**Merkealdia!**

**Sukalde edo jangelarako  
mahaia, aulkiak eta tabureteak.**

**Aukera guztiak.  
Zatoz gure katalogoa  
ikustera!**



San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - [www.textillagunak.com](http://www.textillagunak.com)



Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

| GUARDIAK                 |                              |                        |                            |                            |                          |                     |                            |
|--------------------------|------------------------------|------------------------|----------------------------|----------------------------|--------------------------|---------------------|----------------------------|
| Egunez: 09:00-22:00      |                              | Iluntzean: 20:00-22:00 |                            | Larunbatak: 9:00-14:00 (*) |                          |                     |                            |
| 11 BARIKUA               | 12 ZAPATUA                   | 13 DOMEKA              | 14 ASTELEHENA              | 15 MARTITZENA              | 16 EGUAZTENA             | 17 EGUENA           | 18 BARIKUA                 |
| Egunez<br>*Ibañez        | Egunez<br>*Ibañez<br>*Yudego | Egunez<br>*Ibañez      | Egunez<br>Garitaonandia    | Egunez<br>Arriola          | Egunez<br>*Fernandez     | Egunez<br>Yudego    | Egunez<br>*Oruesagasti     |
| Iluntzean<br>Barrenetxea | Iluntzean<br>---             | Iluntzean<br>---       | Iluntzean<br>Garitaonandia | Iluntzean<br>Arriola       | Iluntzean<br>Barrenetxea | Iluntzean<br>Yudego | Iluntzean<br>Garitaonandia |

\* Fernandez:  
Herriko enparantza, 4  
Garagartza (Mendaro)  
943 756 142

\* Ibañez:  
Rekalde, 1 (Soraluze)  
943 751 638

\* Oruesagasti:  
Kalebarren, 9 (Soraluze)  
943 751 384

**Urte guztian, gauzez: 22:00-09:00**  
Esther Mendinueta Berastegui.  
Urkizu pasealekua, 6 (Eibar) - 943 820 106

I. URTEURRENA

*Maria Luisa Sangrador Epelde*

2021eko martxoaren 9an hil zen, 72 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, domekan, martxoaren 13an, 11:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.





# ETXEBERRIA

## EHORZKETA-BEILATOKIA

**943 741 327 (24 orduz)**

**635 756 295**

**629 635 203**

Santa Klara, 16 - Elgoibar

[info@funerariaetxeberria.com](mailto:info@funerariaetxeberria.com)

[www.funerariaetxeberria.com](http://www.funerariaetxeberria.com)

Kutxak, trasladoak eta koroak.  
Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.  
Erietxe zentruetan zerbitzuak.

*"Begi bakarreko dinosaurioa"*

Luka  
Muñoz  
Albarran  
4 urte,  
Elgoibar

*"Ostadarra"*

Lizar  
Urzelai  
Abellan  
4 urte,  
Elgoibar









## *Manuel Ciorraga Lete*

2022ko martxoaren 2an hil zen, 94 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



## *Manuel Zabala Juaristi*

2022ko martxoaren 3an hil zen, 92 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



## *Angelita Zabala Arriola*

2022ko martxoaren 4an hil zen, 86 urte zituela.

***Beti gertu eta ondoan beharra genuenean,  
beti irribarrez, beti prest laguntzeko.  
Orain, gure bihotzetan betiko.***

Ospasko ilobak



## *Angelita Zabala Arriola*

2022ko martxoaren 4an hil zen, 86 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



VII. URTEURRENA

### Jose Zuazubizkar Goenaga

2015eko martxoaren 16an hil zen.

I. URTEURRENA

### Sabina Arrieta Etxaniz

2021eko martxoaren 10ean hil zen.

Euren oroimenez meza izango da, domekan,  
martxoaren 13an, 11:00etan,  
Elgoibarko San Bartolome parrokian.  
Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.

***Hutsune bete ezina utzi zigun martxoak,  
baina zuen oroitzapenak  
betiko iraungo du gure bihotzetan.***



# G R E M I O N E N G I D A

## IGELTSERITZA

**A. Garate**

Era guztietako  
igeltseritza lanak  
egiten aditua

angelmgarate@gmail.com  
Santa Ana kalea, 28 behe - 2. zkia  
Elgoibar

**610 226 651**

## ELEKTRIZITATEA

**egoluz**

ELEKTRIZITATEA S.L.

Andres: 630 957 345  
677 512 462

Pedro Migel Uruzuno, 14 behe  
20870 ELGOIBAR

Bulegoa: 943 200 697  
ego.luz@hotmail.com

## ERREFORMAK

**ESTUDIOS  
ARRILLAGA**

Errosario kalea, 15 behe - Elgoibar

- ⊙ Proiektuak eta erreformak
- ⊙ Sukaldeak
- ⊙ Gremioen koordinazioa
- ⊙ Obren zerbitzu integrala

**943 744 019  
605 713 168**

## PINTURA

**BIOK**  
dekorazioa

Uparitzaga, 14 - Elgoibar

943 741 552  
606 431 120

biok@biokdekorazioa.com

## LEIHOAK

**LODOSO  
LEIHOAK**

SIGMA INDUSTRIALDEA, 223  
lodosofj@gmail.com  
Tel.: 943 74 34 90



## ARROZTEGIAK

**Ulazia**

ARROZTEGIA ETA ENBALAJEAK  
Albitxuri industrialdea, 1-O/ 1-P  
943 740 547



**MAR**  
ARROZTEGIA

Olaso industrialdea, 17 behe  
943 531 471  
609 054 978  
carpinteriamar@hotmail.com



**iraolagoitia**

aroztegia · altzariak · etxe-aldaketak

Kurutz-gain industrialdea, 9  
20850 Mendara  
Tel.: 943 756 112 / 636 497 485

www.iraolagoitia.com

Aroztegia Carpinteria

**ASIMA**

Ermuaranbide, 18 - Elgoibar

687 150 226  
650 026 631  
636 886 322  
943 744 225

asimaaroztegia@gmail.com

**BIENA S.L.**  
ARROZTEGIA

Ermuaranbide, 12-14-16  
tel/fax. 943 743 116  
www.biena.eus  
info@biena.eus



## ITURGINTZA

**ONGI** iturgintza

Pedro Muguruza Etorbidea, 11  
ELGOIBAR

Tel.: 943 254 522

Faxa: 943 254 523

ongl@ongielgoibar.com

www.ongielgoibar.com

**SANTANA**



Igor Santana

ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi kalea 17, behe  
Elgoibar

943 740 530 / 605 714 905

santanaiturgintza@gmail.com

**PAGOAGA S.A.**

BULEGOA ETA ERAKUSKETA  
Pedro Migel Uruzuno, 8  
Tel.: 943 740 512 / Faxa: 943 743 565  
tienda@pagoagasa.com  
www.pagoagasa.com

BILTEGIA  
San Antolin, 13 - Tel.: 943 740 279  
talent@pagoagasa.com

ELGOIBAR

**MIGUEL AZPIRI**  
iturgina

Iturgintzako eta berokuntzako  
ordezkapenen konponketak.

**635 133 841**

**Berehalako zerbitzua  
ematen da!**

